



Izena: Aerosol Industrial Research Group S.L.

Helbidea: María Díaz de Haro, 68-bajo. Pabellones 3,4 y 5.

Herria: : 48920 Portugalete.

E – posta : info@aerosolirg.com

Web orria : www.aerosolirg.com

Produktuaren deskribapena. Zerbitzua.

AIRg S.L. enpresak ingurumeneko ingeniari-tza jorratzen du, eta industria-jatorria duen kutsadura identifikatu, saihestu eta kontrolatzeko xedea duten produktuetan eta zerbitzuetan espezializatuta dago. Produktu eta zerbitzuok bezeroak eskatutakoaren arabera eskainiko dira.

AIRg S.L. enpresak gaur egun eskaintzen dituen zerbitzuaren eta produktuaren ildoak jarraian azaldu zerrendan jaso dira laburbilduta.

- Aireko igorpenen kontrola. Partikula finen zaintza eta kontrola.
 1. Partikula-fasearen igorpenak neurtzea EPAr buruzko metodoen eta DIN VDI 2006 arauen arabera. Neurri grabimetroak hartuko dira eta tamainaren banaketa ere egingo da.
 2. Tamainaren banaketa denbora errealean zehaztea, laginak aztertzeko aukera izanik (analisi morfologikoa eta/edo kimikoa).
 3. Ekipoak diseinatu, eraiki, kalibratu eta abian jartzea (kateko eragileak), tamainaren banaketa neurtzeko.
 4. Barrurantz egindako igorpenak neurtzea, partikulen araberako airearen kalitatea zaintzeko sareak aztertu eta diseinatzea.
 5. Egoera-analisiak gida-irizpideen aurrean, partikula finen igorpenak murriztu eta kontrolatzeko teknikak garatzeko joerak, eta kutsatzaile zehatzak, hala nola, metal pisutsuak.
- Kutsadura eta gasa/solidoaren banaketa kontrolatzeko ekipoak. Iragazkien zehaztapena.

Gasa-solidoa banatzeko iragazkiak ebaluatu eta proiektatu nahi dira; horretarako, igorritako kopuru osoaren eta horren tamaina banatzeko irizpideak izango dira oinarri, eta, beharrezkoa izanez gero, kutsatzaile kritikoen irizpidea ere aintzat hartu beharko da, tamainaren frakzio zehatzari lotuta. Frakzio-eraginkortasunaren ebaluazioa gasa iragazi aurretik eta ostean egindako neurketen eta kalapatzan jasotako hautsaren banaketaren analisiaren bitartez egingo da.

- Aztarna-kutsatzaileen neurketa bereziak

Partikula guztien igorpen-mugak betetzeak, hain zuzen ere, normalean frakzio lodien kontura lortzen den igorpen-murrizketak, ez du bermatzen metal pisutsuen eta bestelako aztarna-kutsatzaileen kasuan igorpen-mugak beteko direnik. Izan ere, horiek frakzio fina hartzen dute eta ez dira tamainaren maila guztietan modu uniformeetan banatzen.

Merkatuaren deskribapena.

Industria-arloko bezeroak

Ingurumenari edo ingurumen-kudeaketari buruzko diagnostikoaren arazo aurreratuak eta horiek zuzentzeko neurriak azaltzen dituzten guztiak. Aurretik izandako esperientzia eta harremanak direla medio, hurrengo sektoreak aipatuko ditu xede nagusi gisa: zementua, altzairua, sorkuntza elektrikoa – zentral termikoak-, burdinurtua, papera, beira, kimika eta hondakinen kudeaketa

Industria-arloko ez diren bezeroak:

- Administrazioa –tokikoa, autonomikoa edo estatukoa, eta lizitazioak eta zuzeneko kontratazioak egiten dituenak.
- Bestelako ingeniari-tzak.
- I+G+B zentroak – ikerketarako erakunde publikoak, unibertsitateko sailak eta/edo zentro teknologikoak.

Sortzeko urtea.
10/10/2003.

Oraingo langileria.
7.

Fakturazioa.
Zerbitzuak: 154.752 €.
Diru laguntzak: 90.203 €